

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Felix Arregi Zendoia

*Oñati, Gipuzkoa
(1925-2018)*

Aurkibidea



Biografia



Oñatiko Kale Zaharrea jaio zen 1925ean. Eskolan lehenbizi agustinoetan ibili zen eta geroago Deustura joan zen salesiarrekin elektrizitatea ikastera. Bost urtez Deustun egon ostean, soldadutzara joatea tokatu zitzaion. Berangon egin zuen soldadutza. Hiru urteren buruan itzuli zen etxera eta berehala hasi zen lanean elektrikari gisa. Gurasoek txokolate fabrika eta janari denda zituzten. Solfeoa ere ikasi zuen mutikotan eta 6-7 urte zituenetik parrokiako koruan abesten du.

Zintak

ONA-062

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-12-22
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Elortza, Kepa
- **Transkribatzailea(k):** Elortza, Kepa

ONA-063

- **Proiektua:** Deba eskualdeko ahotsak - Oñati
- **Elkarrizketatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Elortza, Kepa
- **Data:** 2008-12-22
- **Iraupena:** 40 min
- **Euskarria:** MiniDV

Pasarteak

1. Deustura ikastera

- **Erref:** ONA-062/002
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:04:05. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Nahiz eta Felix txokolategile familiakoa izan Deustura bidali zuten elektrizitate ikasketak egitera.

Transkripzioa

- Felix, eta abizena esan dozu lehen?
- Arregi.
- Eta bigarrena?
- Zendoia. Bai. Arregi Zendoia Bikuña Barrutia, lau behintzet badakit.
- Aitta esaten ibili zara lehen, nungua zan zure aitta?
- Nere aitta Jose Arregi, Arregi Bikuña, bueno aitta kalia jaixo zan baiña bere aitta zan Olabarrikua, Olabarri baserrixa, Torre Etxebarrittik gora, handik gora jarraitu eta zela dok ha gaiñeko baserrixa, gain-gain-gaiñekua? Pittin bat gertatu be in bihar da hola etorteko, e? Klaro... Ama zuan Sindikatua, Sindikatua, "sindicato de trabajadores no", e? "sindicato de caseros", bai.
- Eta zuek orduen, zure famelixiak txokolatia itten eben.
- Bai.
- Esaten dauenez oso txokolate ona.
- Bai, bai.
- Ze markakua?
- Oena.
- Oena markia.
- "Chocolates Oena".
- Zeuk in zebe lanik txokolaterixan?
- Bai. Ni neuk gutxi zeatik gero nik hamabost urtekin bialdu nindduein zera, "Escuelas Pofesionles Salesianas de Deusto", internauro.
- Eta ze ikasi zebe han?
- Ba elektrezista, elektrezista, eta harrezkero ba bizi guztia horixe, elektrezista.
- Eta han salesianotan zenbat denpora in zebe?
- Bost urte, hamabostetik hogeira, internauan gaiñera.
- Oñatin bertan zeguan hori?
- Ez, Deuston.
- Deuston, Deuston.
- Deuston, gu giñan "parientes pobres", Deuston dago unibersidadia, eta han oñatiar bat han estudixuan ebillen, eta futbolian be itten geben geure salesianotako ekipua unibersidadekuakin, eurak etorten zittuen gure kanpofubulera eta gu faten gitzuan hara eta de todas todas irabazi itten oskuen, hareik kategorixa gehixaokuak ziren, karrerak ziren.

2. Gerrarekin eskolarik ez

- **Erref:** ONA-062/003
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:09:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

<p>Eskolan ospitalean hasi eta gero Agustinoetan jarraitu zituen ikasketak. 1936. urtean amaitu ziren eskolak gerra hasi zenean. Mutikoak ezer ezear kalean ibiltzen ziren.</p>

Transkripzioa

- Eta eskola urtiak, Oñatin be ibilliko ziñan aurretik.
- Bai, agustiñuetan, agustiñotan gero egon zuan epoka bat, ointxe pasau

dira 70 urte, erderaz be in leke, e?

- Bai, bai.

- "Veintiuno de septiembre del treinta y seis" zerak, hona etorri zittuan "las liberadoras, tropas liberadoras del invicto caudillo franco", in txuein hemen kristonak. Eta agustiñotako eskolia martxan euen, oin zera, "Muebles Idigoras" baxauk ba?

- Bai.

- Han xazaken hiru eskola, agustiñotakuak, Santa Mariñan erdiko eskolia leheningo Santa Mariñan, Santa Mariñako erdi-erdixan xauan agustiñuena, ni handik leheningo handik pasau nintzuan, Ospittaletik Santa Mariñara leheningo hara, gero handik beste hiru kurso ya nagusituaguak hor; eta hor geontzela alde in euein, zera agustiñuak be ba hiru edo lauk alde in xuein hemendik.

- Gerriatik?

- "Por rojo-separatistas"-edo, etxakixat ba, orduan danak egozen ... nazionalistagatik.

- Agustiñuak be gorrixak ziren?

- Agustiñuak "rojo-separatistas" ez baiña nazionalistak-edo ziralako-edo, bat e ..., orduko izenak eta akordaittia eta zailla dok baiña, han hiru, bat Larrakoetxea, Bedita Larrakoetxea.

- Bai.

- Ha hantxe xabillan hirugarrenian nagusixarenian, ni hara ez nintzuan aillau, ni hango leheningo edo bigarren maillan nebillela etorri zuan zeori eta kitto. Eta hor geratu gitzuan, ha izan zuan epoka bat baiña hola, mutikuok kalia libre, ez eskola, ez aguazil, ezebe barik. Nahiz ta nagusixak afusilau eta horreik danak egin, gu mutikuak kalia, libre egun guztia.

3. Mutikotan epaitua

- **Erref:** ONA-062/004
- **Iraupena:** 0:04:43. **Hasi:** 00:09:05. **Bukatu:** 00:13:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera
- Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan

Laburpena:

Bere etxeko aldeko denda, Lasena, konfiskatu egin zuten "liberadoreek". Baita bizikletak alokatzeko beste denda bat ere, Kale Zaharrean. Lapurreta inozo batengatik norbaitek salatu zituen Felix eta bere lagun batzuk, eta Donostiako adin txikikoen epaitegira eraman zituzten. Tribunalak absolbitu egin zituen.

Transkripzioa

- Eta gure aldamenian oin Izarraitz tabernia eta hor xauan denda haundi bat eta horkuak be alde in ebein, eta geratu xakuein "requisau", rekisauta gura xuan esatia, hemengo hona etorri ziren nagusixak, eurondako ha denda dana, eta eurak itxi eta ni aldamenian bizi nintzuan, ta oin gaiñera han barruko aldetik han patixora, oin ez xauk baiña patixo bat eta, nere aitta eta ama ta obserbaitten. Ointxe ba, billur, baten bat! Hartu ta paketia eta etxera. Dendia, dendia haundixa ha, "de todo" xauan han, e?

- Ze izen eukan denda horrek?

- Lasena.

- Lasena? Nik ez dakot hori goguen.

- Urrutia, Leonardo, Leonardo zuan hango nagusixa, Lasena, dendia Lasena. Eta gero geuk be ikasi giñuan eta Atzeko Kaleko ate bat forzau eta geu be barrura sartzen gintzuan, eta akordaitten nauk beste gauza batzuren artian pilak, linternia, piladun linternia, ez dakik zer zan mutikotan orduan? Gaur edozeiñek xakok linternia baiña orduan linternia-ta, kalia jolasian ibiltteko linternak-eta. Beste bat oin Upaiñek xakok, Perratzailleneko taberna aurrekaldian.

- Bai.

- Ha bajeria, han bajuau xauan “Alquiler de bicicletas” Zubillagakua zela zuan, bizikleta alkilerra, ezin akordau, klaro, hortarako gertatu in bihar dok. Eta ha be aldetu xauan, ha be rekisautu eta hara be sartzen gitzuan eta pentsau mutikuak detalle bat, bizikleta erruedan tubular kamaria barrukua, goma fin-fiñakin inddakua, holakuak hartu eta honekin zer ingo xuagu eta putz in eta asko ez, eta itturrixan, han baxauk ba Perratzailliaren aurrekaldian itturrixa? Puntia moztu, sartu han eta lotu eta inflau ta inflau ta inflau ta in zuan holakotxe puxikatzarra in eta plaust apurtu ta hola. Eta baten batek denunziau in gozaken (gindduan) ta akabo giñuan “en el Tribunal de Menores de San Sebastián”, fan gitzuan.

- Horreik kamara horreik harrapaittiatik?

- Bueno, hori eta beste leku batzutan be bai. Baten batek denunziau gazaken (gindduan) eta lehenengo kuartelera abixua, eta kuartelian ze ingo ian ba, dana esan, gu abandonautako lekuak zirala eta hola ta ba guardia zibillok, baiña denunzia aurrera fan zuan, “al Tribunal de Menores”. Nik nere aittari emun xaoten disgustorik haundixena askoatik, nerekin “Tribunal de Menoresera” fatia izan zuan.

- Donostira eta zer, juzgau in zindduein?

- Bai, akordaitten nauk leheningo mutikuak aldiko bat, lau egon gitzuan, lau mutiko izango gitzuan, Ion Etxaniz, Iturrozpe be uste xuat baietz, bueno, mutikuak aldiko bat, bizardun gizon bat baiña hola patxadakua, haren izena be oin ahaztuta nau baiña, orduko diputaziñoko presidentia izan bihar zuan /bizuan/, ta famosua dok, zan bizardun bat, eta ba galderak itten, eskolako galderak, zenbaitteraiñoko eskolia geukan; ta akordaitten nauk beste gauza batzuren artian solfeorik aber nekixen eta baietz, “Método de Solfeo” blasta ekarri hara eta kantau hau. Ordurako nik nekixen ha kantuan, solfeua, ixa buruz, kantau nitxan: “do-mi-do-mi-sol-do...” kantau nitxan ta bien; bueltan etorri gitzuan pozik danok zeatik gero danok batera sartu gitzuan, ta esan oskuan horrek gurasuairi, beste nere lagunak be gurasuakin fan zittuan, gurasuairi esateko egoteko lasai: “tranquilos que estos chavales no tienen absolutamente ningún asunto de malicia como para venir al Tribunal de Menores, vayanse ustedes tranquilos que aquí no pasa nada”.

4. Berriro eskolara

- **Erref:** ONA-062/005
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:13:48. **Bukatu:** 00:16:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Umetan lapurreta bategatik salatu zituzten Felix eta bere lagun batzuk. Epaituak izan ostean, lapurreta salatu zutenek ez zuten espero mutikoak itzuliko zirenik. Geroago eskolara itzuli eta beste urte pare bat egin zituen Udalak birmoldatutako eskolan.

Transkripzioa

- Orduen libre itxi zindduein?
- Bai. Eta illunkaran atzera orduan autobusian Brinkolara eta Brinkolatik trenian Donostira itten zuan, Oñatiarreneko autobusa, eta Oñatiarreneko autobusak urteten xuan aiuntamientuko atzekaldian, kantuetxo hortan.
- Alondigia euená.
- Hori dok, alondigia bai. Alondigan urteten xuan autobusak eta autobusian bueltan entzun nuan gure denunzia sartutako emakume batzuk etxoitten egozela eta aurrez esan eueilla gu ez giñala bueltan etorriko, zera eruango gindduela, zela esaten dok?
- Reformatorixora.
- Reformatorixora eruango gindduela eta hola, eta bueltan han ei xazaufen begira aber etorten giñan bueltan, eta danok etorri giñala bueltan-ta. Nik horreik entzundakuak aittari eta amari.
- Denunzia sartu zetzuenak orduan zuen zain egon ziran.
- Bai ba, atzera bueltan ez giñala etorriko, reformatorixora bialduko gindduela ta ez zan izan halakorik ezebe, ba mutikuak orduan hamaika-hamabi, hamaika-hamabi urte. Eta ze maliziarik eta ezebez, bai zera! Kalian egun guztian ezebe barik, ez eskola ta ez aguazil, geratu giñan ezebe barik.
- Eta militarrek eta asko ibiltten ziran kalian garai hartan?
- Keba! Ez, militarrek e...bueno gero gaiñera hemendik Mondraue be liberau xuein ta gero geratu zuan hor Intxortan frentia, setienbria eta negu guztia udabarrira arte frentia hor egon zuan. Alde batera gorrixak eta bestera zeok, reketiak eta falanjistak.
- Inbiktuak.
- "Invictos".
- Orduan zuk orduan ya eskola barik geratu ziñan.
- Bai. Gero ipiñi xuein bat, beste personaje famoso bat Don Jose Luis Arrazola abadia. Don Jose Luis Arrazola, beste bat, hor atzera lehen agustiñuak aldetako leku bertan eskolak ipiñi xuein eurok eta han jarraitu giñuan beste urte pare bat-edo. Gero maristak etorriko zittuan, ni maristakin ez nintzuan ibilli.
- Maristak unibersidadian.
- Unibersidadien, bai. Gero maristak. Gero urte pare bat edo hiru bat edo don Jose Luisekin eta hortxe, oin mueblerixia dakon... hor ziren hiru, hiru eskola, eta hirurak gero atzera martxan ipiñi xuein, bai. Don Jose maixu Don Jose Luis, eta beste bat, beste personaje famoso bat be ibilli zuan hemen. Hareik ba aiuntamientuak ipiñi txuan han eta han atzera gero jarraitu giñuan.

5. Felix Ireneo izena

- **Erref:** ONA-062/006
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:16:45. **Bukatu:** 00:18:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Udal langileak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Zigorrak

Laburpena:

<p>Eskolan euskaraz aritzea debekatua zuten. San Ireneo egunean jaio zen, Arrillagarenean. Aitajaun ordea udaleko idazkaria izan zen.</p>

6. Bost txokolategi Oñatin

- **Erref:** ONA-062/007
- **Iraupena:** 0:03:58. **Hasi:** 00:18:50. **Bukatu:** 00:22:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Gozogintza

Laburpena:

Aitak ekin zion txokolategintzari etxean. Beste lau txokolategi zeuden orduan Oñatin. Uztargilea ere bazegoen Kale Zaharrean.

Transkripzioa

- Eta zenbat urte euki zeuen txokolaterixia martxan?
- Ba aitta gazterik hil zuan, berrogeta hemezortzi urtekin, ni soldau nenguela. Soldautzatik permisuaikin etorri nitzuan, oso geitz zatarra gaiñera, oin izango balitza alzeimer edo holako antzerakua ni akordaitten nauk, orduan artian gaztia nitzuan baiña. Baiña orduan ez xauan alzeimer edo hori izenik eta, orduan ez zuan hau ... medikuak esan xuein "arterioesclerosis" zala. Poliki-poliki, pittinka-pittinka fan zuan geruau eta gutxiau, hiru bat urte-edo geixorik tristiak pasau giñuan, bai.
- Eta txokolaterixia zeiñek ipiñi zaben martxan? Zure aittak?
- Aittak, aittak bai. Kazarixa zuan gaiñera, kasan eta peskan itten xuan gaiñera.
- Eta txokolatia.
- Eta txokolatia, eta turroia.
- Eta zuek konpetentzia asko eukitten zeuein Gerekatarrakin?
- Honbre, klaro. Gereka eta Loiola, "Chocolates Loyola", eta Orbea, eta Maiztegi, txokolategiñak...
- Zahor be egongo zan.
- Ez, Zahor gerokuau, gerokuaukua dok; orduan "Chocolates Maiztegui" hor Olakuan, eta Orbea hemen ...
- Bai, Erdiko kalia.
- Erdiko kalia "Chocolates Orbea", eta "Chocolates Guereca" guria baiño pittin bat beheratxuauan eta "Chocolates Loyola" be bai. Horreik danak ordukuak dittuk. Igual zaharrena geuria izan, nik pentsau e?
- Leheninguak izango ziñain igual?
- Bai.
- Zela euken Gerekan etxiak izena? Zela zan?
- Bazterrikena.
- Bazterrikena.
- Bazterrika.
- Eta zuena, Aguria?
- Arrillagana guria.
- Baiña lehen esan dozu aittajun horri aguria esaten otsailla.

- Aguria, etxian, aguria, amari eta aittari entzunda, aguria.
 - Orduan Arrillagana, Lasena gero eta gero Bazterrika?
 - Hori dok. Artian zera, Uztargillena.
 - Uztargillena.
 - Bai, bixen bittartien, gu eta Bazterriken bittartien Lasena eta Uztargillena.
 Hori dok, bai.
 - Uztargillena izena-edo ...?
 - Uztargillena, Lizarralde.
 - Baiña uztarrixak itten zittuein?
 - Uztarrixak, horixe. Atzeko kalera, ospital aldera, bueno, oin Institutua
 xauk, lehen ospitala. Gu han ibiltten gitzuan bere inguruan, begira.
 Uztarrixak, Uztargillena. Horregatik xakuat neuk penia, etxe ha barriztau
 eta barriztau zuan eta han atian ez ipinttia Uztargillena. Hemen San Juan
 kalian baxaok Metalgua, Metalgua zana, eta ipiñitta izena Metalgua. Oin
 barriztau ta gero e? Kristalian e? Han behebaruko ate gaiñian Metalgua.
 Eta hari zeatik ez otsain ipiñi Uztargillena, lehen Uztargillena zuan hori.
 Egon zittuan txoferra Rufino eta, Rufino Lizarralde hau Uztargillena igual
 esaten gitxan, Rufino eta beste bat be bai, bi anai taxista.
 - Nik Rufino goguan dakot.
 - Taxista. Rufino eta beste anai bat be bai, horreik zittuan Uztargillenekuak,
 bai.
 - Kale Zaharra orduan jantzitta euen.
 - Bai, hoixe.

7. Kakao espainiarra

- **Erref:** ONA-062/008
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:22:48. **Bukatu:** 00:25:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Gozogintza

Laburpena:

Txokolatea etxepean egiten zuten eta denda bat ere bazuten bertan. Kakaoa eta kafea biak ala biak xigortzen zituzten. Gerraostean, kakaoaren jatorria aldatu beharra izan zuten eta Espainiako afrikar kolonietatik ekartzen zuten.

8. Kale Zaharreko denda, tailer eta bestelako zerbitzuak

- **Erref:** ONA-062/009
- **Iraupena:** 0:03:21. **Hasi:** 00:25:39. **Bukatu:** 00:29:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

<p>Kale Zaharra tailerrez, dendaz, ile-apaindegiz eta bestelakoez josita zegoen Felixen gazte garaian.</p>

Transkripzioa

- Eta han Kale Zaharrian beste espoloien be beozen holako taillerrak-eta? Edo beste fabrikarik-edo?
- Ez, ez. Beste aldian ...
- Zuen espoloian ba bi txokolaterixa eta Uztargilliarena, eta parien?
- Parian beste aldian? Ez, han xauan Luzarrena, Agapitto, Agapitto zapaterua, gero relojerixia, ...
- A, Illarramendi.
- Illarramendi ez, Mugarza, oin barriztauta dauena.
- Eta hau fotografua baeuen ordurako?
- Ka, ez, ez; barberixia bai, barberixia betik, mutikotatik ezagutu xuat nik hor.
- Nikolasen aitta.
- Barberixia bai, eta handikaldera beste barberixia zera, Aurelio, eta besterik ez, hemen lehen ez xauan ... eta fruterua Elgero fruterixia.
- Eta panaderixia igual egongo zan, Illarramendi.
- A panaderixia bai, bai, por supuesto, klaro.
- Oso kale industrialia zeukatzuein.
- Eta perratzillieneko tabernia, Perratzailliena.
- Eta hotela, Hotel Ona.
- Hotela, bai.
- Eta Hotel Ona parekua, plaza hartan ze egoten zan orduan?
- Gasolineria egon zuan denpora baten, gasolineria Illarramendik ibiltten zuan triki-traka, triki-traka, gasoliña emuten.
- Orduan ez zan izango oingo modukoa, ez?
- Egoten zuan palankilliari triki-traka, triki-traka. Eta Frai Bizente, Arantzazuko fraidia errekauek itten, errekaustia, Arantzazuko errekaustia, ha etorten zanian harek emuten txan igurtzixak zeari, mangeriari, azkenengo tantanera arte.
- Behixa jaizten pare, e?
- Gu mutikuak hantxe ibiltten gitzuan beti eta, gasoliñera inguruan.
- Eta hareik arku hareik eta zuk in ziranian ezagutu zittun?
- Ze arko?
- Han itturri ostian dagozenak.
- Ha bai, harrizko zera, ha betikua dok. Gure denporan ha harrixa holaxe xauan, igual-igual, bai, bai, bai.
- Eta ha zertarako in euein-edo?
- Ba ez xakixat ze...almazena-edo ez xakixat ez eukein han baten batek. Ez xakixat.
- Zeatik arkaitzian inddako zuluak dagoz han. Kanteria-edo ez zan ba izango?
- Han gero han eskillarak hareik Aitzekora igoteko hareik danak libre goraiño; han mutikotan han ibiltten gitzuan gora ta behera ta. Oin ha be itxitta xauk, klaro, Aitzekua dauen moduan abandonauta, han oin ibiltten dan mutikote honeik edozein han sartu-ta...hori ondo xaok oin.

9. Salestarren barnetegian

- **Erref:** ONA-062/014
- **Iraupena:** 0:04:53. **Hasi:** 00:43:40. **Bukatu:** 00:48:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak

Laburpena:

Salestarretan goserik ez zuten pasatu baina jaten justu samar ematen zieten. Diziplina gorde behar izaten zuten baina salestarrak ez ziren oso gogorrak. Jai egunetan Bilbora edo mendira joaten ziren egun pasa eskolatik.

10. Deustun bost urtez, ikasten

- **Erref:** ONA-062/015
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:48:33. **Bukatu:** 00:51:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo

Laburpena:

<p>Bost urtetako ikasketak egin zituen Deustun. Entretenimendu nagusia futbola izaten zen. Ikasketak bukatu eta berehala Bilbora itzuli behar izan zuen, baina oraingoan soldadutzara.</p>

11. Argiketaria eta abeslaria

- **Erref:** ONA-062/016
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:51:51. **Bukatu:** 00:56:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Soldadutzatik itzuli zenean bere kontu hasi lanean eta erretiroa hartu arte argiketari lanetan jardun zuen. Oraindik egiten ditu lantxo batzuk. Bost urterekin hasi zen solfeo ikasten eta laster beteko ditu 80 urte Oñatiko parrokiako koroan abesten.

Transkripzioa

- Eta soldaduskaia akabo eta ya lanera.
- Ya etxera, lanera.
- Gaur arte.
- Eta lanian zure kontura hasi ziñan-edo ...?
- Bai, nere kontura.
- Hasieratik.
- Bai. Euki neben okasiñua pila fabrikara lanera fateko. Lastima. Asko hobeto ibilliko nitzake.
- Igual ez.
- Jubilauta eta libre.
- Oin be libre zagoz.
- Bai libre. Han txapuzak juntau itten xatak neri beriel, e? Eta gero reklamaziñuak. Arregluak-eta. "Mis chapuzas". Oin semia dabil instalaziñotan eta telebisiñuak eruan ta ekarri ta horreik danetan. Eta ni Martiñolaneko kobazuluan. Martiñola kobazulua dok ha. Kobazulua, dana trastoz beteta.
- Nik uste dot azkenengo 40 urte honeittan nik ha betik igual-igual ezagutu dotela.
- Eta lehen esan dozu hori, eruan zinttuaiñian juiziua itteko ta solfeua galdetu zetzula; solfeua ikasten ibilli ziñan orduan.

- Solfeua da beste istorixa bat politta. Beste urte pare ba edo hiru irauten battut mundu hontan ya kontau neke larogei urte doiatela parrokiako koruan kantuan hasi nintzanetik. "Que ya está bien". Zan, abade gazte bat etorri zan, etorri barri hona, organista famiak. Mutilla, bueno mutilla gizona, mutilla, mutiltzarra zan, atleta, tipua, Bermeotik, uste dot Bermeokua zala bera. "Don Ascensión Zabala" zan. Eta guk geukan tia bat, tia Karmen aman ahizpa bat, gure etxian aginketan eben gure aittak eta amak baño gehixau. Eta haren denporan etorri zuan hori zeori eta orduan egozen "Hijas de María" organizauta, "Hijas de María" oin ez dozue holakorik zuek ez dakitzue ta. "Hijas de María" eta "Hijas de María" edo izango zuan eta organista barriori etorri zanian ba gura ebela ba mutikuakin korua itxia eta gure tia edo han izango zuan, eta gure tiak nik solfeora fan bihar nebela, ta eskolatik urten arratsaldian, ospitaleko eskolatik, bost urtekin-edo, eta meriendau eta zuzen Santa Mariñako erdiko eskolara gero agustiñuak egon ziren, Santa Mariñako oin eskolak dauzen lekua. Han egozen hiru departamento.

- Elizia euen lehen han.

- Elizia ez, eskolak, nik mutikotan eskolak.

- Elizia edo kapillatxo-edo ermitatxo bat euen lehen han.

- Kapilla txikitxo... aldamenian? Kapilla txikitxua baiña ha dana zuan eskolia, e? "Escuelas Nacionales" xazaken han, "Escuelas Nacionales", eta erdiko eskolan solfeora, ta ba derrior fan bihar. Zeatik aittak eta amak be, bai ba fan in biakozu, baiña zera zuan aginketan ebena, neskazarra. Eta ba hala hasi nintzan eta han urte pare bat edo hiru bat-edo, ixa egunero solfeora hara, nerekin batera beste mutiko batzuk be bai, klaro. Nere lagunak, nere lagunetatik ba neu eta Federiko be probablemente Federiko difuntua, Federiko be bai, ibiliko zuan ha be Don Ascensioekin.

12. Latinez kantuan

- **Erref:** ONA-062/017
- **Iraupena:** 0:03:18. **Hasi:** 00:56:05. **Bukatu:** 00:59:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Solfeoa ez ezik kantuan ere ikasi zuen. Kantu gregoriarak latinez ikasten zituzten. Solfeoko maisua gogorra zen klaseak ematerako orduan. Pertsonaia ezaguna zen Ascensión Zabala maisua, bere janzkera dotore eta pilotarekiko zaletasunagatik, besteak beste.

Transkripzioa

- Eta zuan abade bat dotoria e? Mutiltzarra, atletia eta, baiña plastatekuak emuten osken, berihela ez baian ikasten, eta "aluori" esaten, "alu hori", bizkaitar, bizkaieraz, "alu hori" eta plastatekua, benga, ta hareik danak aguantau ta ixilik. Etxian esaten baian ba "zeuk be ganorarik ez dozuen (etzeben) euko edo", errazoirik mutikuai sekula emun orduan e? Oingo moduan e? Oin plastateko bat emuten baldin badau maixo batek baten bateri eta etxera faten bada, maixuak plastatekua emun dost, baxoiak aitta protestan.

- Berihala.

- Honbre.

- Eta zueri orduan ...

- Eta orduan “método de solfeo” aspaldikua, oin ez xakixat zekin ingo dauen solfeua. “Método de solfeo” orduan zuan ba leku guztietan praktikamente bat, zeatik han Donostian neri harek etara nostana bera zuan, iguala.

- Eta orduan apaizak ematen zotsuen solfeua.

- Apaizak, bai. Organistia eta koruan kantuan.

- Orduan hasi ziñan zu parroixan?

- Bai, bai. Hori don Ascension Zabala gaiñera ha be desagertu in zuan, ha be “rojo-separatista”-edo zan-edo, nazionalistia-edo, desagertu in zuan hemendik. Eta hemen ingo txuan ba bost edo sei urte lehenau, “treinta y seis”, eta badakot Goi Argi, Goi Argi da bai parroixako hojia. Holako baten, bai gordeta xakuat, Goi Argi. Holako bat gordeta dakot, reportaje bat ekarri eben horrena, Don Ascension Zabala, eta zala, perfumauta eta ibiltan zan eta hori bai akordaitten naiz, eta hor ipintten dau hori be, eta sotanatik kanpora jemeluak, zerak, alkondara zurixa, jemeluakin, jemeluak...Eibar, Eibarren ze material itten zan, horixe xakuat beste bat ahaztuta. Jemeluak materiala baltza eta...baltza eta doraua-edo.

- Damaskinaua?

- Damaskinau, baiña ez, beste izen bat eukin, Eibarren itten eueilla-edo, hori goguan dakot. A eta behin entzun neben etxian aittari esaten, aitta amari esaten: “hau organista barrixa etorri danau, pelotan itten idau pelota lekuan sotania gerrira jaso eta frakak bistan”. Eta handik bi edo hiru egunera, zailla, han nun ikusten xuat gure organistiori gerrixan, sotania gerrixan lotu, klaro, bestela ezin ba atxintxika egin pelota lekuan, ta pelotan. Orduko kontuak.

- Eta zela ikasten zenduen, solfeo bakarrik eta organua jotan-edo...?

- Ez, ez, kantuan, kantuan bakarrik, kantu bakarrik. Eta gero ba kantuak zerak, ba gregoriano zera, latinezkoa dana, elizan dana latin itten zan orduan.

13. Meza latinez

- **Erref:** ONA-062/018
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 00:59:23. **Bukatu:** 01:02:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

<p>Reyes Korkostegi alkate egon zenean zera erabaki zuen: urtero egun baten latinez abestutako meza ospatzea Arantzazun. Meza ondoren beti jatetxe berean eta beti menu berdinarekin bazkaldu dute azkenengo 26 urteotan.</p>

Transkripzioa

- Oin be itten dogu, e? Zuek badakitxue azkenengo, aurten in dogu hogeta sei urte, lehen “primer sábado de noviembre” Arantzazun mezia Reyes Korkostegik asmauta, latiña kendu zanetik ba, eta neuri be klaro, mutikotatik hasi ta Konzilio Batikanuan edo kendu zuan latinezko zera, lehenau funeral danak latinezko zerak, “líberame”-ta, dana latinez itten zuan.

- Bapebe entenditten zeuein zeuek?

- Bueno, bai, interesa ipiñi ezkerro badakik ze gura dauen esatia-ta, latiñez-ta, erderia ta latiña ba bere zera baxakuei, edo? Eta itten xuau “al estilo de antes” Reyes Korkostegi alkate zala asmauta, koruko, parrokixako korukuok gehixenok, bat edo beste ez dok etorriko baiña gehixenok itten xuau urtero mezia Arantzazun eta gero bazkarixa Sindikan, ta mezia latiñez dana, lehenauko zerak, kantuak. Funeralian eta kantaitten geben kantuak kantaitten txuau meza hortan eta gero bazkarixa Sindikan, eta bazkarixa be jakiñekua, e? Orduan itten zan moduko bazkarixa. Hasteko “sopa de caldo bueno”, urtero gaiñera programia itten xuau, e? Hogeta sei urte intxuau aurten, Hogeta seigarren urteurrena, “sopa de caldo bueno con fideo y pistola”, gero “garbanzos con berza”, baiña garbanzuak eta azia nahastuta aparte, garbantzuak txorixuakin eta okela zatixakin egositta, eta azia morzilla odolostiakin, gero “rollo”, okelia izaten dok, “rollo”, eta gero postria “arroz con leche”, konpota eta ze gehixau izaten dok, ta bueno, hori, “menú fijo”, hori jakiñekua, beti iguala. Eta ona e? Oso ona.

- Gosetu in naiz entzuten bakarrik. Orduan hori zemendiko leheningo zapatuan?

- Bai, azaroko leheningo zapatuan, aurten bigarrena tokau dok zeatik leheningua jai zuan, bai, bigarren zapatuan.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-02-27

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com